

## KANALAK

Gure enpresaren komunikaziokanal nagusia enpresaren webgunea da. Bertan argitaratuko dira gure enpresak eskeintzen dituen zerbitzuen informazio garrantzitsuena. Bertan ere, ekarpenak egiteko aukera dago eta gurekin zuzenean kontaktuan jartzeko datuak: helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa. Webgunera edozein pertsona sar daiteke interneten bidez, gure zerbitzuak eskatzeko edo informatzeko.

Harreman pertsonala bidezko kanala ere erabiliko dugu. Izan ere, gure enpresako kideak, enpresaz enpresa arituko dira pertsonalki gure proiektuaren berri ematen. Informazioa helarazteko, bisita horietan gainera, alde zuzenetik prestatuko dugun enpresaren inguruko informazioa jasotzen duen liburuxka bat utziko da enpresa bakoitzean.

Irrati bidezko iragarkiak ere egingo dira. Irrati lokalak erabiliko dira kasu honetan.

Merchandasinga ere erabiliko dugu informazio kanal bezala. Izan ere, enpresako produktuak banatuko ditugu. Konkreteki, boligrafoak eta liburuxkak, enpresaren logo eta datuekin, egingo diren hizketaldi eta formakuntza guztietan. Horretaz gain, zerbitzua eskaintzerakoan pertsona guztiek enpresako kamiseta eramango dute.

Zerbitzua emateko orduan gu izango gara enpresetara joango direnak geure enpresaren informazioa ematera, hots, ez dugu beste enpresen beharrik gure zerbitzuen salmenta egiteko. Beraz, kanal zuzena erabiliko dugu.